

E. KNÖRR EUSKALTZAINAREN ETA P. GOENAGA URGAZLEAREN GEORGARAKO BIDAIAREN TXOSTENA

Donostia 1990-VII-27

Georgiako Zientzi Akademiaren Linguistika Institutuak gonbidaturik, ekainak 26, 1990, E. Knörr euskaltzaina eta P. Goenaga urgazlea Tbilisira joan ginen eta bertan egon uztailearen Sera arte.

Gonbidapenaren iturburua hango Institutuaren eta hemengo Unibertsitatearen eta Euskaltzaindiaren arteko loturetan dago. Aurreko harremanak ahaztu gabe (Uhlenbeck, Bouda, Marp, Lafon, Cikobava, Mitxelena, e.a), toki berezia du Xabier Kintanak, harreman hauen zuzpertzaille nekaezinak. Euskaltzaindiari dago kiola, ezin ahantz daiteke Nazioarteko Euskalarien Jardunaldietan (1980) Natela Sturua eta Salome Gabunia partehartzaile izan zirela, eta geroztik aldizkari-trukaketa dela Linguistika Institutua eta Euskaltzaindiaren artean. Aipatu behar da orobat Euskal Herriko Unibertsitatearen berriki arte Euskararako Erretoreordeak, J. Iturbe jaunak, bultzatu duela bidaia hau, bai eta aurtengo azaroan Sturua eta Gabunia andereek Gasteizen emango duten ikastaldia ere.

Uztailak 3 eta 4, eguerdian hasita, Linguistika Institutuan, 40tsu akademikide entzule, bi hitzaldi eman genituen, bata euskararen kondairaz eta oraingo egoeraz eta bestea euskal ergatiboaz. Hitzaldiok arras interesgarri gertatu ziren guztientzat, eta galde-erantzunez ordubi t'erdia arte ez genuen bukatu.

Geure egonaldian, gainera, zenbait elkarrizketa izan ditugu, Erakunde batzuetako buru nahiz buruordeekin. Zilegi begiku honako izen hauek aipatzea:

- A. Tavjelidze, Georgiako Zientzi Akademiaren Presidentea;
- B. Jorbenadze, Linguistika Institutuaren Zuzendaria;
- K. Lomtavidze, Institutu bereko Zuzendarikidea;
- V. Shengelia, Institutu bereko Zuzendariordea;
- T. Gamtsemlidze, Zientzi Akademiaren Kanpo Harremanetarako Zuzendaria;
- B. Giugushvili, Zientzi Akademiaren Informazio Sailburuordea;
- O. Nodia, Literatur Harremanetarako Etxearen Zuzendaria (Itzulpen Institutua da hau);

- G. Ahalamberidze, Ikasleen Jauregiaren Zuzendaria (georgiar musika eta dantzarako erakundea);
- Z. Alexsidze, Georgiako Eskuizkribuen Institutuaren Zuzendaria;
- N. Dzhamberidze, Georgiako Artearen Historia Institutuaren Zuzendaria.

Jakina denez, Georgia goi-irakaskuntza eta ikerketetan lurralde aberatsa da. Atzerriko irakasle eta ikerleekiko loturak guztiz ugari eta sendoak dira, eta nabarmena da georgiarrek lotura horietan ezarria duten interes bizia.

Geure aldetik, azpimarratu behar dugu, Euskaltzaindiari aurkezten diogun txosten honetan, Linguistika Institutuarekiko harremanak sendotzeko premia, gainerako alorretan egin daitekeen lana gutietsi gabe (aipatu dugun Literatur Harremanetarako Etxea, adibidez, oso interesatua dago Euskaltzaindiaren Literatur Batzordearekin mintzatzeko, halaber Euskal Idazleen Elkartearekin). Uste dugu, zin-zinez uste ere, hitzarmen orokor bat sinatu behar dutela Euskaltzaindiak eta Linguistika Institutuak, hasteko. Horrelako eskari bat etor liteke Georgiatik hurrengo egunotan.

Aipatu behar dugu, halaber, Euskaltzaindiaren argitarapenak biziro eskertu zituztela hangoek. Eramandako argitarapenak Linguistika Institutuaren liburutegian geldituko dira gehienak.

Egonaldi guztian atseginez izan gara tratatuak, Tbilisin ez ezik, bai eta hegazkinak hartzeko Moskun pasa behar izan genituen orduetan. Bertan sakon-sakonean sentitzen duten euskaldunekiko haurridetasuna orain ikerketa mailan ere azkartuko eta hedatuko ahal da.

Gasteizen, uztailak 16, 1990

E. Knörr

P. Goenaga